



Itsasoko ninfak izan ditu Zarauzak lehiaketara aurkeztu dituen hiru orrazkerak osatzeko inspirazio iturri. GAUR8

Hamazortzi urte zituela erabaki zuen Ziortza Zarauzak jaioterri duen Bilbo utzi eta ikasketak Donostian jarraitzea, aitzak gidatzen duen Beta estetika eta ile-apainketa eskolan. Formakuntza jasota, zenbait urtetan inguruko ile-apaindegietan aritu zen lanean eta, apurka-apurka, irakaskuntzaren munduarengatik interesa ere erakutsi zuen. Betan klase solteak ematen hasi eta, dagoeneko, hamarkada da bertan lanorduso lanean ari dela, egun ikasketak buru eta hasiberrien tutore gisa. «Ez naiz sekula ikasle zintzo horietakoa izan eta, oraindik ere, nire lagunek ez dute guztiz sinesten irakasle gisa nabilenik», dio, irribarrez, sinesgaitz aurpegiak koilararekin kafeari bueltak ematen dizkion artean.

Gustuko du bere lanbidea. Ile-apainketak artearen munduan duen lekua aldarrikatzen du, baita irakaskuntzak jakintzaren transmisioa den heinean duen balioa ere. Eta bere «bi pasioak» uztartuta lan egin ahal izatea oparia dela dio: «Egun, lana izate hutsa izugarria da, baina, gainera, zuk gustuko duzun horretan jardun ahal izatea... Hori loteria tokatzearen parekoa da».

Eskola 25 urte betetzeko puntuan zegoela, urteurrena ospatzeko zerbait berezia egiteko gu:

infraganti

ZIORTZA ZARAUZA

Hamarkada pasa darama Zarauzak Donostiako estetika eta ile-apainketa eskola batean irakasle lanetan. Zentroak 25 urte betetzen dituela-eta zerbait berezia egin behar zutela pentsatu eta hala erabaki zuten The Style Master lehiaketara aurkeztea. Estatu espainoleko txapela jantzita, Lisboan jokatu den munduko txapelketan da orain.

goa piztu zitzairen, eta, hala, The Style Master estetika eta ile-apainketa lehiaketara aurkeztea erabaki zuten. Txapelketa gaztea da, orain lau urte sortua, baina, Zarauzak argitu digunez, dagoeneko bere lekua egin du estetikaren munduan: «Ile-apainketako Goyak dira, gure lanbidearen barnean sekulako oihartzuna izaten dute eta garaile suertatzen dena munduko estetika zentro eta eskoletara deitzen dute, ikastaroak eta abar eman ditzan».

Aurten, 27 herrialde ezberdinetako 1.200 ile-apaintzaile aurkeztu dira lehiaketara. Lehen fasean, norberak dagokion herrialdeko lehiaketan hartu behar du parte; bigarrenetan, herrialdeko finalak jokatzen dira; eta, hirugarren fasean, antola-

kuntzak herrialdeko finalisten artean bederatzi ile-apaintzaile hautatzen ditu munduko finala joka dezaten. Estatu espainoleko lehiaketa bere egin ostean, bihar eta etzi Lisboan izango da Zarauza, beste zortzi finalistekin batera munduko lehiaketa jokatzeke. Nerbioak airean dituela aitortzen du, baina esperientziatik ahalik eta gehien ikasten eta une guztiez gozatzen ahaleginduko dela dio, «baita urduritasunaz ere».

ITSASOKO NINFAK INSPIRAZIO ITURRI

Ametsetatik ateratakoak dirudite Zarauzak lehiaketara aurkeztu dituen hiru orrazkerak. Ezinezkoak. Askok ez lukete sinetsiko lerroon gainaldean dauden horiek estentsio eta ileorderik gabe eginak direnik. Baina hala da. Zin egin di-

gu: «Antolakuntzak debekatu egiten ditu. Lisboan zuzenean egin behar ditugu orrazkerak eta, hori jakinda, txorakeria galanta litzateke argazkiak egiteko unean ileordeak erabiltzea, zuzenekoan antzemango litzatekeelako».

Itsasoko ninfak izan ditu Zarauzak inspirazio iturri, «izaki eder eta dotoreak direlako, horren bikainak... Haurtzarotik izan ditut gustuko. Mitologiako istorioak ikaragarri ederrak iruditu izan zaizkit beti. Orrazkerak osatzeko orduan, ilea apaintzera hiru sirena etorriko balitzaizkit zer egingo nieken pentsatzen jardun nintzen... eta hau atera zait», azaldu du.

Hirurak osatzeko teknika bera erabili duela kontatu digu. Plan txekin ilea frisatu (sigi-saga egiten duela jarri), eta, hura orraztean, zeharo harrotua geratzen dela azaldu digu, «afro itxuran. Horrela errazagoa da maneiatzea, ile masa modelagarria duzu eskuartearen, eta errazagoa da eskulanak balira lez lore-hostoak, olatuak eta abar sortzea. Teknika horrekin bururatu zaizkidan hiru egin ditut nik, baina milaka aukera ezberdin daude».

Lehenetako (irudian ezkerrean agertzen dena), puxika bat erabili du Zarauzak. «Itsasargia irudikatu nahi izan dut, marinela gida-tzen dituen egitura delako. Gainera, nire sustraiak Plentzian daude, marinela herri batean. Puxika airez bete, gako batekin buruari erantsi eta poliki-poliki ilez estaltzen dut. Lehen aipatutako teknika erabilia eta laka piloaren laguntzaz, gogortu egiten da orrazkera eta, behin egonkortuta, orratz batekin puxika leherrarazi eta plastiko zatiak garondoa libre uzten duan zulutxo batetik ateratzen ditut». Hala lortzen du erabilitako materialen arrastorik ez uztea. Egitura horren azpian, itsasoko uhinak irudikatu ditu.

Puxika zulatzean orrazkerak ez gainbehera egiteko «froga asko eta asko» egin behar izan dituela dio, baina, behin lortuta, ikaragarri gustura dagoela emaitzarekin. «Lisboako finalean orrazkera bat egin behar dugu zuzenean eta, hau da, ziurrenik, bertan egingo dudana... ausartzen banaiz behintzat!».